

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko uztailearen 24a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Larraun • Plazaolako bide berdeari baietza eman dio Madrilek.
Tomas Sobrino • «Argiaren momentuak gozatzea dut gustoko».



• MIKEL SAIZ

Tutera: erraldoien pausaleku

Erraldoien topagune izanen da etzi Tutera. Volatin Ordenak antolatu duen XXV. Erraldoien Kontzetrazioan Nafarroako 101 irudi bilduko dira bertan. Dena dela, Iruñekoak, herrialdean urte gehien dutenak, ez dira hitzordura hurbilduko.



Larraun • Plazaolako bide berdearen lehen urratsa

Madrilgo Gobernuak baiezkua eman dio duela bost urteko proiektuari

1993an aurkeztu zuen Plazaola Partzuergo Turistikoak, Madrilen, trenbidea berreskuratzeko proiektua. Azkenik, badirudi gauzatuko dela Partzuergoaren asmo nagusietakoa.



Plazaolako trenak Donostia-Iruñea ibilbidea betetzen duen.

• ARTXIBOA

Plazaola Partzuergo Turistikoak, sortu zenetik, argi izan du Plazaolaren trenbidea berreskuratu beharra zegoela kanpoko turistak erakartzeko. Hori erakusten du, besteak beste, erakundearen izenak. Aurretik, ikerketari eskainitako urte luzearen ondoren, 1993an aurkeztu zuen proiektua Madrilgo Ministerioan. Baina, orain arte, ez zuen Partzuergoak inolako erantzunik jaso. Hala ere, 1996an, lur desjabetzeak egin ziren. Nafarroako Gobernuak hartu zuen lurak desjabetzearen ardura, eta Lekunberriko Udala arduratu zen, bestalde, bide horrekin lotura estua zuten eraikuntzen desjabetzeaz.

Baina, hortik aurrera, prozesua geldirik zegoen, eta behin baino gehiagotan agertu zen kezka Partzuergoak. Kezka azaldu ziren bertako arduradunak behin baino gehiagotan. Aste honetan, ordea, kezka hori poz bilakatu da, gobernuko ordezkariak baiezkua eman baitiote proiektuari. Baiezko hori, gainera, 144 milio pezetatan gauzatu da (5,76 milioi

libera). Kopuru hori da lehenengo fasearen lanak bere gain hartuko dituen enpresak izango duen aurrekontua, lehenengo fasea bakarrik onartu baitu orain Gobernuak. Gerora, bigarren eta azken fasea onartu beharko du. Oraingoan, behintzat, Lekunberri eta Uitziko arteko bidea konpondu ahal izango da.

Lehiaketa publiko baten bidez erabakiko da zein enpresak izango duen lanok aurrera ateratzeko ardura. Irailean amaituko da lehiaketa horretan parte hartzeko epea, eta urri aldera lanak hasiak izango diren esperantza dute Plazaolakoeak. Partzuergoko gerente Maitena Ezkutarik dioenez, «puskarik zailena Uitziko tunela izango da. Kontuan hartu

behar da hiru kilometroko tunela dela, eta hori dena argiztatu eta txukundu egin behar dela». Dena den, hiru kilometro horiek tunelaren iluntasunean egin nahi ez dituenarentzat, bide alternatibo bat ere aurreikusia omen dago. Bai tunelean, bai bide guztian, oinez, zaldiz edo txirrindulaz ibili ahal izango da, baina inoiz ez motorrez. Horretaz aparte gutxituentzat ere egokitu nahi dugu, altura gehiegirik ez duenez, haientzat ere aproposa gerta daiteke eta», dio Maitenak.

Plazaolako Bide Berdea izango denaren antzekoak oso gutxi omen dira Espainian. Aragoi eta Asturiasen bakarrik daude antzekoak. Dena den, herritar

batek baino gehiagok uste du, oraindik ere, tren zaharra berreskuratu behar dutela. Plazaolako ustez, kanpotarren erakargarri izango da Bide Berdea, baina baita bertakoentzat ere. Zaharrek, garai batean trenez egindako bide berbera egin ahal izango dute, eta gainerakoek, paseatzeko aukera paregabea izango dute. Baina horretarako, urtebete itxaron beharko dute, 1999aren amaiera arte ez baitira bukatuko lehenengo fasearen lanak. Gero, Uitzitik Nafarroako mugarainoko bidea, bigarren fasearen barruan burutuko da, denborak aurrera egin ahala.

→ Urko Aristi

Lizarra

Ekitaldi ugari asteburuan

JAIETAKO SUZIRIA ABIATZEKO astebete gelditzen ez denean, zer ikusi, zer entzun, zer jan eta zer erosi ugari egonen da gaur eta asteburuan Lizarran. Besteak beste, erbesteko dantzak ikusteko, jazz musika entzuteko, artisautea azokari so egiteko eta Erdi Aroko afaria dastatzeko aukerak egonen dira hainbat bazterretan. Dantza gustoko dutenek aukera ezin hobea dute gaurkoan Foruen plazan. Iluntzeko 22:00etatik aitzina Boli Kostako dantza talde bat ariko da tranpaldok gainean. Ekitaldia egunotan Corellan ospatzen ari den Nazioarteko VII. Folklore Jaialdian kokatzen da eta aurreko bi egunetan Errumaniako eta Argellako taldeak izan dira oholza gainean.

Jazzak ere izanen du kabida asteburuan. Australiako James Brook An Enie punk folk taldeak kontzertua eskainiko du gaur doan Los Lanoseko berdegunean. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

Bestalde, bihar eta etzi, Aintzinako Artisautza Merkatuak Lizarran egingen du geldiduna Nafarroako hainbat herritatik ibili eta gero. Egun osoan salgai egonen dira eskulan eta elikagai ugari. Halaber, bihar Erdi Aroko afaria ospatuko da Santo Domingon. 3.500 pezetan truke garai hartan jaten ziren jakiak dastatzeko aukera izanen da.

Hurrengo astean, aldiz, Lizarrako Kilkarra antzerki taldeak bere azken lana taularatuko du astelehen, astearte eta asteazkenean 22:00etan Remontival ikastetxean. Taldeak 689 logela lana eskainiko du.

→ Kristina Berasain

muga enea

MIKEL REPARAZ



Republica Bananera Dos Navarros

Ez dut gogoratzen zehazki non, baina lurralde tropikalen batean gertatu zela uste dut. Afrika edo Ertamerikako estatu batean, nekazal ekoizpenengatik ez ezik bestelako kontuak direla eta 'bananero' deitzen dituzten horietako batean, hain zuzen. Almirantea uniforme zuria soinean zeramala atera zen jauregi presidentzial aurreko eskilaretara, erabakiaren berri ematera. Armadako jeneralak eta Gobermuko idazkariak zituen alboan. Almirantearen emaztea atzean ikus zitekeen, bigarren planoan, haur bana esku bakoitzetik zintzilik. Almirantearen irribarre estua lehen planoan. Irudi huraxe atera zen biharamunean herrialde hartako

egunkari bakarraren? egunkari ofizialaren azalean.

Almirantearen hitzak herrialde hartako azken baztarreraino iritsi ziren, Legearen aurrean begi onez ikusia zen irrati estazione bakarraren bidez. Herrialde hartako herritar guztiak aske zirela esan zuen Almiranteak, behingoz libro zirela. Herrialde hartako azken etxolako azken transistorean aditu ahal izan zen Almirantearen boz garbia, diktatorearen haize bolada freskoa. «Honezkerok aske zarete, herritarrok, ene ume txook». Herritarrek egundoko fiestak egin zituzten ilunabarrean, Almirantearen hitzak ospatzeko, Aita onak askatu baitzituen azkenean!

Eta ez dut ezagutzen mezu hura jaso eta sinetsi ez zuenik. Nola ez zuten bada sinetsiko, legezkatutako irratiek eta egunkari ahalguztidunek hizki handitan esan bazuten. Adio aniztasunaren esklabutzari, agur, betiko agur, Mr. Zapping.

Banana ekoizleen herrialdean gertatu zen hura, bai. Antilletako uharte txiki batean, Burkina Faso eta Togo artean nonbait? Ala bananak lurrazpian zainzuriaren moduan hazten diren beste lurralde hartan izan zen? Almiranteak, cacique eta diktatoretan diktatore, «irritati librea» izaten jarraituko du Euskalerrira Irratiak. Kontsolamendu hori gelditzen zaio bederen.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Aipuen joria eta mixeria.

Gero eta gehiago, Volmerrek esango zukeen bezala, nazkatzen naute artikulisten aipuek. Goiz euritsu batez ari direla, ze behar izkutu eta beroa sentitzen dute «oso euritsua, Sartrek esango zuen bezala» eransteke? Eta zer gehitzen diote artikuluari adorno barroko bat ez bada?

Jendilaje jantzia direla alegia, Sartre irakurria dutela alegia, ez dago besterik. Eta hori artikuluetan bada, entseguaz zer esan! Entsegu gehienak autoren zita hutsalak besterik ez dira, 300 orrialdetako floriturak eta zutabe kiribilduak. Horretarako hobe lukete folio bateko bibliografia bat eskaini eta fura! Senekak esango zuen moduan: *Mentulam caco!*

Barroko-nazkante, Patziku Perurenak gehituko zien bezala, hauek aparte jasangaitzagoak iruditzen zait moralista-intelektual horiek egiten dutena: beraien ideia sotila bota aurretik historian izan diren haundikien aipuz egindako mahai bat eraiki eta bertara igotzen dira altura gehiago lortuko dutelakoan. Voltaire, Italo Calvino eta Primo Leviren (azken hau moda-modan) aipu batzuk jartzen dituzte aurretik eta kito. Gero Mayor Orejarekin ados daudela esateko. Sariak merezi dituzte, noski merezi dituztela, bai eta Kate-drak ere! Horren gutxi eskainita horretatik bizitzea lortzea ere ez da ahuntzaren gaueko eztula! (eeee...Xalbadorrek esango zuen bezala). Gainera, (Manolok gehituko zuen bezala, ze ostias), autore zendu horiekiko kriston errespetu falta iruditzen zait. Etikarik gabeko *ventriloco* lana da hori. Auschwitzten sufritu zuenaren presentzia artikuluan jartzen dute (Primo Levi) eta gero bizkarretik eskua sartu eta ahoa mugi arazten diote, Er-mua, Er-mua, errepika dezan. Jasangaitza. Etika. Ja, ja.

Eta azkenik egiten ez diren aipuak daude. Hauek bitxiak dira oso, eta majikoak. Idazlan on bat irakurtzen duzu eta handik bi urtetara beste batek esandakoak, aipamena egin gabe noski, hartu-kopiatu-plagiatu dituztela konturatzen zara. Kalitatezkoak izaten direnez ez naiz ni kezuka hasiko horrelakoekin; dena den, aipuen erreinuan jatorriaren, iturriaren, ezkutatze hau pixka bat kuriozoso dela azpimarratu nahi nuke. Obra bat osorik ez zegoela eta Virgiliok idatzi zuen bezala: *Catera desiderantur*, bestea ere nahi genuke, alegia.

Bera • Nazioarteko dantzariak plazara

Bertako bi gazte talde eta kanpoko lau ariko dira bihar

Bidasoako Nazioarteko Dantza Jaialdian, dantzari gazteak ariko dira bihar Beran. Hamabi-hamasei urte arteko sei talde ibiliko dira herrian, goiz eta arratsalde.



Berako Gure Txokoa taldeak nazioarteko jaialdian dantzatuko du.

• JON ABRIL

BEHOBIAN (EDO PAUSUAN) URTERO antolatzen den Nazioarteko Dantza Jaialdia Bidasoako bertze zenbait herritarra hedatuko da aurten. Bihar Beran ariko dira dantzari gazteak. Euskal Herrikanpo etorritako lau talde ariko dira: Peruko Inca America, Letoniako Zelta Sietins Folk Ensemble, Poloniako Harnam Zespól Tanca Ludowego; Kataluniako Grup Castello Associació d'Estudis Tradicionals, eta bi antolatzaleetako ordezkariak: Pausuko Eraiki eta Berako Gure Txokoa.

Sarritan izan dira beratarrik Pausuko jaialdian dantzan, eta urte hasieran dantza jaialdi hori antolatzeko aukera eskaini zitzaizkion gustura hartu zuten erronka. Egitaraua prestatzeko, irailean Beran egiten den Dantzari Ttiki Egunaren formua hartu dute oinarri. Goizean Berako auzoetan barrena banatuko dira taldeak, eta, karriz karriz ibili ostean, Altzateko kalean bilduko dira eguerdian, hamaiketako egin ondotik. Ondoren Peruko, Castelloko eta Behobiako dantza-

riak Berako dantzarien etxeetara joanen dira bazkaltzera. Letonia eta Poloniako taldeek, berriz, hizkuntzaren mugak direla eta, eskolan bazkalduko dute, gainerako taldeetako musikariekin eta antolatzaleekin batera.

Arratsaldeko 4:30etan Kaxerna Aisialdi Taldeak zenbait ekintza prestatu ditu gaztetxoentzat, eta herri guztietako nortasuna eta bizimodua erakutsiko duten muralak eginen dituzte kiroldegia aitzinean. Mural horiek arratsaldeko 8:00etan Eztegar pilotale-

kuan hasiko den dantza jaialdian ikusi ahal izanen dira. Dantza jaialdi horretan dantza talde guztiek parte hartuko dute.

Dantzari egun hau antolatzerakoan, Gure Txokoa elkarteak Pausuko Eraiki dantza taldearen laguntza jaso du, eta Berako Udalaren dirulaguntzarekin ekarri ahal izan dira talde hauek guztiak Berara. Beran ez ezik, Etxalarren eta Elizondon ere ariko dira dantzari gazteak.

→ Jon Abril

Bera • Alkaiagako bestak asteburuan

LESAKAKO LURRETAN DAGOEN Alkaiaga auzoko bestak asteburu honetan izanen dira. Bihar, Santiago eguna, goizeko 10:00etan hasiko da besta. Altxaferoa bota ondotik, Berako trikitalariek kalejira egingen da. 11:00etan Zelaian meza izanen da, eta 12:30etan Berako Nazioarteko Dantza Jaialdiaren barrenean Peruko Inca America taldeak emanaldia eskainiko du.

Arratsaldean auzoko pilotarien arteko partiduak jokatu dira Alkaiagako frontoian. 21:00etan auzotarrak afaltzera elkartuko dira, eta Irats taldearekin dantzaldia izanen da.

Igandean, arratsaldeko 5:30etan trikitalariak ibiliko dira. 7:00etan Gure Txokoa dantzariak ariko dira, eta 8:00etatik aitzinera Kristina eta Amaia taldeak joko du.

Arkupeak-en besta etzi, Sunbillan

Igandean ospatuko den Nazioarteko Aiton-amonen Eguna dela eta, Arkupeak erretiratu eta pentsionisten elkarteak besta eguna antolatu du Sunbillan. Bestan aiton-amonak ez ezik bilobak ere bilduko dira. Eskualdeko herri guztietatik hurbilduko dira Sunbillara autobusez aiton-amonak, eta 12:00etan pilotalekuan bilduko dira, omenaldia eskainiko baitzaie dantzari eta bertsolarietara. 13:00etan meza izanen dute, eta ondotik aiton-amonak eta bilobek opariak trukatu dituzte.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Larrungo tren Ttikia

Ttipi-ttapa aldizkariaren azken zenbakiak Larrun mendira igotzen den Tren Ttikiar eskaini dio erreportaia, Asier Gogorza kazetariak idatzia, trenaren 74. urteurrena aitziakiatzat hartuz. «1924. urteko apirillean egin zuen lehendabiziko joan-etorria Larrungo Tren Ttikia. Orduz geroztik milaka eta milaka turista eraman ditu Saint Ignaceko lepotik Larrungo kaxkoraino, frantsesak gehienbat. Hemen inguruko jendea ere joaten omen da, igande eta besta egunetan batez ere. Denetara, urtean ia 350.000 bisitari garraiatzen ditu tren historiko honek, eta urtetik urtera kopuruak haundituz joaki dira, gainera».

«Larrun mendia —edo Larun, hegoaldean erraten zaion bezala, baina inondik ere ez frantsesek jarri dioten La Rhune xelebre hori— Euskal Herriko mendirik bisitatuena da. Egun ederra delarik, batzuetan 4.000 turista igan ohi dira, kaxkotik dauden bistekin gozatu eta bentetan erosketak egitera».

Azken 74 urteetan, bisitari anitz eraman ditu Tren Ttikia Larrunera; irabaziak ere ez dira makalak izan, **Ttipi-ttapa**-k aipatzen duenez. Parisko *General des Eaux* enpresa publikoa da egun trenaren jabe. «Gaur egun Larrunera joan-etorria egin nahi duen edozein emakume edo gizasemek 50 libera (1.250 pe-

zeta) utzi behar du takillan. Hurrek, berriz, 35 libera (875 pezeta) ordaindu behar izaten dute bidaia, eta oraindik harrigarriagoa egin zaiguna: zakurrei ere tarifa horixe bera aplikatzen diete. Kontutan hartu behar da denboraldi hondarrerako 350.000 bat lagun garraiatzen dituela trenak. Diru kontuak alde batera utzita, erran behar da betidanik trenaren aldeko eta kontrako iritziak sortu direla inguru hauetan. Turisten sosak hemen gelditzen direla argudiatzen dute batzuk, baina horrenbetez jende mendian barna ibiltzea ingurugiroarentzako arras kaltegarria dela pentsatzen duenik ere bada».

Erraldoien festaerraldoia

Etzi Tuteran eginen den XXV. Erraldoien Kontzentrazioan 101 irudi elkartuko dira

Erraldoien topagune izanen da etzi Tuteran. Erriberako hiriburuan Volatin Ordenak antolatu duen XXV. Erraldoien Kontzentrazioan Nafarroako 101 irudi bilduko dira. Dena dela, Iruñekoak, herrialdean sona handiena eta urte gehien dutenak, ez dira hitzordura hurbilduko.

IZEN ALDAERA EZBERDINAZ BADA ERE, PENINSULA osoan XVI. mendetik, eta Iparraldean eta Akitanian ere aspalditik, izan dira festaren parte erraldoiak. Dena den, tradizio gehien Ebro ibaiaren ibarreko herrietan izan dute, eta, oraindik orain, ezaugarri horri eusten diote. Normalean erraldoiak zazpi edo zortzi izaten ziren eta pertsonai historiko, bibliko edo alegorikoak irudikatzen zituzten. Jose Maria Iribarren idazle iruindarraren arabera, lau bikotetan sailkatuak zeuden: Europa, Asia, Afrika eta Ameriketako erregeak ordezkaten zituzten lurralde guztietako eukaristietan Jainkoa adoratzeko zela azaltzeko. Horren lekuko dira besteak beste Iruñeko erraldoi konpartsa. XVI eta XVII. mendeetako jai ospakizunetan ohikoak baziren ere, 1780an Espainiako Carlos III erregeak kaleratutako Erret Zedulak galerazi egiten erraldoiek elizetan eta prozesioetan egiten zituzten segizioak eta dantzak. Debekua indarrean jarri bazen ere, erraldoien oihitura hura ez zen galdu eta gaur egun arte iritsi da orduko zentzu ludikoa mantenduz.

Horren lekuko dira herrialdeko hainbat herrietan eta hiritan egiten diren erraldoien kontzentrazioak. Tuteran urtero egiten da bat Santa Ana zaindariaren jaiak aitzakiazat hartuta. Aurretik kontzentrazioak hogeitabost urte bete ditu eta inoiz baino erraldoi gehiago bilduko ditu: Nafarroa osoetik etorritako 101 irudi, hain zuzen ere. *Nafarroa, erraldoien lurra* lelopean etzi Erriberako autobus geltokian dute hitzordua. 1974tik antolatzen den ekitaldiak harrera ona izan du beti eta aurretik zer esanik ez. «Etxekoez landa, orain gutxi arte hamar-hamabi biltzen ginen baina denbora aurrera joan ahala gero eta gehiago biltzen gara, eta aurretik 101 izanen gara» dio Javier Marin, Volatin Ordeneko idazkaria oso pozik. «Santa Ana zaindaria zein egunekin tokatu den da gako, astez erraldoi gutxiago hurbiltzen dira baina asteburutan gehiago etortzen dira kontzentrazioa. Guretzat errezagoa litzateke beti igandean egitea jakin badakigulako astelehen batean ez dugula hainbeste jende bilduko baina ohitura Santa Ana zaindariaren egunean




egitea da», gaineratu du.

Beraz, azken orduko arazorik ez badago, erraldoia izurratu dela edo konpartsa norbait gaixotu dela Nafarroako hogeita bost herrietako erraldoiak bilduko dira, guztira 101 eta horien eramaileak zenbatuta 317 lagun eta beste 48 gaitari. Kontzentrazioan Iruñerriko konpartsa eta mendialdeko baten batzuk parte hartuko badute ere, gehienak Erdialdekoak eta Erriberakoak dira. Zerrenda luzean parte hartuko dute: Abarzuza, Altsasu, Agoitz, Arguedas, Artaxona, Azagra, Barañain, Burlata, Zarrakaztelu, Cascante, Cintruengo, Corella, Cortes, Falces, Funes, Fustiñana, Uhartea, Lerin, Irunberri, Mendavia, Miranda de Arga, Murchante, Noain, Ribaforada, Zangoza, Tafalla, Tuteran, Alesbes eta Montea-gudo.

Gero eta gehiago ikusten den ohitura

Volatin Ordeneko kideak ez ezik, Tuterako konpartsa kideak lanpetuak dabilta egunotan Santa Anako festan egin beharreko irteerak eta kontzentrazioa prestatzen. Tuteran 1614 inguruan ezagutu ziren lehenengoz erraldoiak. 1930an egin zuen Zaragozako Aragonesa de Fiestas lantegiak duela hamabi urtera arte egon zen erraldoia. 1986an Bolatinek Ordenari bi erraldoi oparitu zitzaizkion, bi gizonzkoak (Santxo



Javier Marin

«Jai gehienetan esanguratsua da erraldoien kontzentrazioa. Arguedasek, Cascantek, Zarrakazteluk ekartzen dituzte erraldoiak festetarako, eta Mendialdeko herrietan ere gero eta gehiago ari dira jartzen. Jendeak gustoko ditu, eta Nafarroa erraldoien lurra dela ziurtatzen du

Azkarra VII eta Labriteko Joan) eta bi bikoteak aurkitu zizkion Udalak, (Foyko Katalina eta Santxa Anderea). Mari Ganuza iruindarraren lantegian egindakoak dira lau erraldoiak, kallitate hobegokoak eta artisauek erara tajutuak. Tuterako Gayarre kalean dagoen Apaiztegi izandako egotza zaharkituan jasoak daude eta egunotan hautsa kendu eta azken ukituak ematen ari zaizkie lau metro luzera eta 60-65 kilo diren lau irudiei. Erraldoiak beste herrietan bezala, Udalaren ardura dira. Jose Luis Balmaseda Muga Folklore Elkarteak kidea eta Sancho Azkarra erraldoiaren eramaileak parte hartuko du igandeko kontzentrazioan.

Aurretik gaur Katedralean zaindariari abesbatzarekin batera egindako ereserkia dantzatuko dute Santa Anari goizeko hamar eta erdietan egiten zaion kandelak eskaintzen. Bihar ordu bat lehenago egiten den Santiagoko Prozesioa joanen dira, eta etzi, Santa Anaren omenezko prozesioa eta erraldoien kontzentrazioa. «Gure konpartsa goizeko 6:30etan ateratzen da Magdalena elizetik Santa Ana Zaharra deitutako prozesioa. Segizioa Katedraleraino doa eta berriro bueltan itzultzen da. Gero berriro 11:00etan batuko gara gainontzeko konpartsekin autobus geltokian prozesioan Katedralera joateko», dio Balmasedak. Erraldoien balsak eta kalejirak, eta dituzten hamar

koreografiarik batenbat. Tuterako jota kasu, dantzatzu joanen dira Alde Zaharreko karraketan barna.

Kontzentrazio zaleak ez diren arren, urtero joaten dira. «Kontzentrazioan jende andana biltzen da eta ezin duzu lasai ibili. Nafarroako herri gehienetan erraldoi taldea baduten arren, hemen eta beste gutxi batzuetan dantzatzu dira irudiak. Koreografiak egiten dira eta musika jarraitzen dute, beste toki batzuetanbertz, segizioa jarraitu besterik ez dute egiten», azaldu du Balmasedak. Ildo beretik, Mari Ganuza, Iruñeko konpartsa kideak uste du hainbeste kontzentrazio ez dela ona. «Ez naiz erraldoien kontzentrazioen aldekoa ekitaldia erre egiten delako. Asko nekatzen dute. Umeentzako den ekitaldi bat igandero nonbaiten plazartzu baduzu denborarekin ikusleak aspertu egiten dira». Ez dira iritzi berekoak antolatzaileak, herrialdean hainbeste erraldoi behin bakarrik batu direla oharturik pozik daude etzi lortuko dutenarekin. «Duela urte batzu Euskal Herri osoko 125 erraldoi bildu ziren Iruñean, baina Nafarroakoak bakarrik hainbeste inoiz ez», dio Marinek. «Hasi ginenean ez zegoen horrelako ohiturarik. Orain bertz, jai gehienetan esanguratsua da erraldoien kontzentrazioa eta hori oso atsegina da. Arguedas, Cascantek, Zarrakazteluk ekartzen dituzten erraldoiak festetarako eta Mendialdeko herrietan ere gero eta gehiago ari dira jartzen, Iruñean, Altsasu eta Agoitz kasu. Jendeak gustoko ditu eta

Nafarroa erraldoien lurra dela ziurtatzen du ekitaldiak, gaineratu du.

Egun luzea irudientzako

Etzi, Santa Ana zaindariaren Eguna dela eta, Erraldoien kontzentrazioa Tuterako autobus geltokitik aterako da. Goizeko 8:00etan jartzen dituzte, gosaldia eta bi ordu geroago ateratzen dira. Zaragoza Etorbidea jaitziko dute Gaztanbide kalera iristean batzuk, berrogeita hamar inguru, Foruen Plazara joanen dira, eta gainontzekoak prozesioaren bidea hartuko dute. Prozesioarekin joaten direnak Alde Zaharreko karraketan barna. Besteak Foruen Plazatik Yanguas eta Miranda, Herrerias eta Bodega kaleak pasata Merkadal Plazan geldituko dira dantzatzu. Behin prozesioa iraganda Foruen Plazara itzuliko dira bi taldeak azken jota dantzatzera. Lehenago prozesioa guztiak joaten baziren ere, aurretik 101 erraldoi izatean ezinezkoa da. «Guztiak zaindariaren ondoan joan nahi dute eta erraldoiak ongi kokatu arren batzuetan Santa Anatik hiru kilometrorra doaz. Beraz, hobe da kontzentrazioa bitan banatzea», argitu du Marinek.

Egun luzea izanen da konpartsentzako eta batez ere Tuterako arendako goizeko 6:30etatik dantzatzu ibiliko delako. Eskatu duten bakarra, eguraldi egokia eta ez Tuteran maiz egiten duen bero sapa. 3.600.000 pezetako (144.000 libera inguru) aurrekontua izan duen ekimena arratsaldeko hiruretan egiten den otorduarekin bukatuko da, eta, nahi duenak, noski festan jarraituko du.

→ Irene Arrizurieta



Barañaingo erraldoiak ez dute huts egiten etzi. MIKEL SAIZ

Konpartsa zaharrena ez da joanen

Antolatzaileek kontzentrazioak duen leloa, *Nafarroako erraldoien lurra* bete nahi izan dute arren, ez dute erabat lortuko. Iruñeko konpartsa, Nafarroako konpartsa zaharrena, ez dute lagun izanen ez direlako akordio batera iritsi. Konpartsa dituen zortzi erraldoiak: Europa, Asia, Afrika eta Amerika bikoteak 1860an Tadeo Amorenak iruindarrak eginak dira. «Aurrekontua joan egiten zaigu Iruñekoekin. Erraldoi talde bakoitzeko gaitari hirukotea jartzen du gu eta haiek erroldoi banarekin taldea daramate eta azkenak txistulariak. Hemen 22 banda egonen dira bakarrik. Beraz, beste sei gaitari taldea gehi txistulariak diru arko da», argudiatu du Marinek.

Volatin Ordeneko idazkariak hori baldien arren, Mari Ganuza Nafarroako hiriburuko konpartsa kideak arrazola baldintzak direla dio. «Hamar pezetako aurrekontu bat baduzu, ez saiatu ehunekoa duen zerbait ematen. Joateko asmoa genuen baina akordioa egina dago konpartsa osoa aterako dela eta kasu honetan hori gaitari eta erraldoiak bakarrik jaitziko ginela adostu genuen. Baina beste arazo bat sortu zen. Gure konpartsan erraldoi bakoitzak bere gaitari taldea du eta azkenak sei txistulari Tuterakoek bi gaitari taldekin ateratzea nahi zuten eta ez gaude prest. Jendeak ez du baldintza horietan atera nahi», argitu du.

Gainera, Iruñeko erraldoiak ez dira

nolanahi ibiltzekoak. Orain arte egiten ziren erraldoi gehienak Zaragozako lantegiak ziren, «borobilak eta txarrak, altuagoak dira eta gorputza gutxi eta hanka gehiago zuten», dio Ganuzak. Hori dela eta, Nafarroan dauden erraldoien %70 Zaragozako lantegikoak dira. Aldiz, Iruñekoak hobekiago garraiatzeko ugalka dituzte eta larrazko buruko burua jartzeko eta egonkortasun eta indarra egiteko aukera gehiago eskaintzen dute. Gainera, duela hiru urte bukatutako berrinkuntzeekin pisua gutxitu egin zaie eta 58tik 63ra bitartekoa da halen karga. Dena den, gero eta gehiago dira Ganuzak Burlatan duen lantegian artisauek erara egiten direnak.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Juan Kruz Errenteriaren lanak

Bonaparte printzeari 1866.eko abenduaren 22an Uriarte kolaboratzaile bipilak igorri gutunean mendebaldeko bizkaiera, eta zehazkiago, Plentziako aldaera idatz-eredua duen idazle bakarraren berri ematen zitzaigun



«YO TENGO UN MANUSCRITO que tiene cincuenta hojas y que contiene el catecismo, modo de oír misa, vía crucis, rosario y otras cosas en bascuence de Plencia. Es de Juan Cruz de Rentería, cura de Gorliz, que dista un cuarto de hora de Plencia, único escritor de aquella comarca. Si vd. quiere la enviaré. Bonapartek geroago izkiriatu ihardespenean eskuizkribu honekiko erakutsi interes bizia ez zetorren bat, ordea, Uriartek plentziarraren lanaz eginiko ebaspenarekin: «Trato de imprimir su doctrina hace como unos cinco años; al padre Estarta y a mi nos comisionaron para examinarlo, y no lo aprobamos por el mal bascuence». Esangabe doa, Uriartek berak ere Plentziako aldaerara irauli Astete egina zuela, baita Bonaparteri bidali ziona ere, nonbait artezagogo egina zukeena.

Astunegia zitzaiokeen Plentziakoari Uriarteren juzkua, eta oraino argira gabe dirau Renteriarene aipatu lanak, tamalez beti ere. Uriartek epaitu 50 orrialdeko eskuizkribua Bizkaiko Aldundiaren liburutegiko Bonaparte hondoan datza, Cristiñauac biarreco daben doctriña, berac egunero eguin biar dituen lanac, eta beste asuntu eder eta gaurco egunean eusqueldun artean biarrecoac, iminten dire sey tratadu edo satten. Alabaina, honakoa ez da Renteriarene lan bakarra, eta badira urte dezente Jose Maria Etxeberria eta Lino Akesolo bikoteak beste baten berri eman zutela IX. Eusko Ikasketen Kongresuan. Joxemiel Barandiaranen galdetegia Amorebieta-Etxanoko erantzunez 1976.eko negu aldean betetzen ari zela, Josemari Etxebarriak gure Renteriak idatzi eta inprimatu gabe zirauren 200 gorako orrialde duen sermoitegia kausitu zuen Zornotzako Epaltza

auzoko Torre baserrian. Eskuizkribuaren garrantzia saihestuz, hasiera batean, ez zuen idazki honen arretaz begiztatzeko ardurari beranduago arte eutsiko. Orduan da Akesoloren laguntzarekin batera aipatu IX. kongresuan sermoitegi honen azterketa linguistikoa plazaratu zuenean. Agian, atera litekeen ondorioz interesgarriena, bizkaiera mota honen sakonkiago ezagutzeko daitezkeen gain, Markina aldeko eredu literariotik aldenduz, Renteriak egin zigun beste eta berorren eredu berri baten proposamena dugu, nolana ere, antzutu zitzaiona erabat, eta ziur gaude egon, Uriarte-Estarta aztertzaile frantxikotar bikotearengan izan zuen lehenbiziko oztopoa ez zatekeela bakarra.

Bihoa, beraz, Renteriarene idatz tankeraren lagin eskasa, nolatan geneukan idazle ezagutzeko doi bat izanagatik ere: «Jaungoicoaren eternidatetico aurquitute edo egotea, eracusten da humanidadeac demporaric ucic eguin baric, bereganico euqui daben siistuteagaz, eracusi munduei, deuen ordena eta edertazunegas. Estago erri bet, anchinecoa icenagaiti, divinidaderean ezaupideric euqui estabenic: zavaldu vequieic lurrera, eta aurquituco dire uri eta albo errieic gauec ascoren esaupide baga, baya ez Jaungoicoaren ezaupide baga. Ciceron eta Senecac egui au confirmetan deude. Erri anchineco eta oreinzucoetan yllun avar nabarrean ba+o espada, aurquituric divinidaderean ezaupide eta siñosqueria arguiro da, jaungoicoaren ganeco fedea aurquituten dala conforme errazoisco dan naturaleceagas; Chinaco salvajeen

artean estabela aurquitu, jaungoicoaren ezaupideric esteuquen bat, ofreciduten dituelaco euren sacrificioac ceruco espiritu dan divinidadeari; groseriazco gauec bat ycengo lizate ecer ezari entendimentu eta vicieric esteuquen gauecari, promes eta sacrificioac eguitea aurquituric bada modu onetaco oyn edo cimentue humanidadean Jaungoicoaren ganian euquico siñisqueriagas».

Renteriaz dakizkigun apuraren arabera, bestalde, Uriarterengandik hasitako ustea berregin beharrean egon gara, plentziarra ez baikenen, mungiarra baizik, Altzibarrek idoro eta aditzera eman zigunari jarraikiz bederen. Pedro Juan Kruz Renteria Landesa 1804.eko irailaren 14an sortu zen Mungian, amaren aldetiko herrian hain zuzen ere. Edozelan ere, aiko erroak zeharo jaurerrian zituen sustaituak, aitatxi-amatxiak, Plentzia, Bakio eta Mungia bertakoak zirela. Gazte denboran igarotakoez ezer gutxi ez badakigun arren, pentsatzekoa da non edo non teologia ikasketak burutuko zituela, izan ere, 1832. urterako Gorlizko eliz liburuetan bere sinadura agertzen hasi baitzen. Gorliz izan zen, bada, Renteriarene bizilekua zein lantegia, 1874.eko malatzaren 31n zendu zen arteraino.



Patziku Perurena



Itsuen begiratua

BEHIALA, GAZTE ETA berde nintzela, nere bihotzeko izuen gordelekutik atereran, epigrama xoragarri haxe aditu nuen: «Neskati- lita itsua- ren / zurezko begiak dira / deusezetara begira / begirik edere- rrenak».

Ez dakit zergatik, nik buruz ikasi dudana epigrama bakarra duzu. «Buruz ikasi» esan düt? Gezurra. Hizketa guziak dira traidore. Ez baitut uste sekulan deus ikasi dudana, bihotzez ez bada. Epigrama hori ere halatsu. Gerotik, nere guztizko andregai sekretua izan da neskati- lita itsu euskaldun hori; betirako ezkondu baiginen, inork inoiz sumatuko ez duen sentieran.

Gero, izuen gordelekuetatik atera eta, neure ingurumarira begira, arrotz sentitu nuen neure burua: «ni ez naiz hemo- mengoa», esaten zidan bihotzak, harik eta nere guztizko andregai itsuaren sentiera su- matu nuen arte. John Everett Millais pintore prerrafaelista sentikorraren koadroa nuen argi iturri:

«Imagina ezazu ogia irabazte- ko akordeoi tipia jotzen duen neskati- lita itsua. Behar bada, ez ogia irabazteko, dohain jotzeko baizik. Ahizpa gaxteagoarekin, bide bazterrean eseri da, euri zaparradaren ostean. Haruzko hegian bistatzen da sorteria, zuhaitz artean erdigaldua; larrean abere baizuk bazkan, eta honuntzago hegazti ilun batzuk, euri ondoko lur hezean aztarrika.

Ahizpa itsuaren altzora bil- dua, txutik dago ahizpa tipia, eta ezin igerri da nork zein ba- besten duen. Bien soineko ilu- nak jadanik ajatuxeak ageri di- ra, baina, adatsak gargi eta txukun orraztu berriak. Ahizpa gaxteak, itsuaren altzotik, liru- raz begiratzen du beheko erre- kan sortu den ostadarra, argia- ren miraria; eta orduan, bapa- tean tximeleta xuri bat pausatu da ahizpa itsuaren soineko bel- txaren golkoan urduri, xintik ere atera gabe, bihotzetik biho- tzerako mandatari iduri; eta be-

rehala, eskusoinu tipia hartu eta, hauspoari eraginez inter- pretatuko du neskati- lita itsuak, ahizpak ezin adierazi dion sen- timendua, melodia». Agian, nik beste inork adituko ez duen melodia.

Bai, metaliteratura xuria da hau, baina ez hitzetara edo pentagramara ezin ekarri du- dan melodia hori. Sinets ezazu, bihotzez sinesten baldin bada- kizu. Askotan ernaberritzen da melodia hori nere bihotzean.

Lehenago batean, Cantares de ciego delakoetan argi bila nen- bilela, hala leitzen nion Julio Caro Barojari, gazteleraz: «Frantzisko Goyakoak, 1778ko apirilaren 27an, Madrilgo Pala- zioan kartoi bat laga zuen, 2,60 metro luzekoa eta 3,11 zabale- koa, printzeen logelarako; egun Pradoko Museoan ikus daiteke 'Itsu Kitarraduna' izenpean. Eskena, zalantzarik gabe, huri bazterreko auzoren batean ko- katu du. Atzean hirulau pisuko etxebizitzak ageri baitira, eta arboladia inguruan.

Ilunabar alde da, eta jendea solasera eta denborapasa atere da. Itsua kantari ari da, bere ki- tarra eskuan. Ingurura bildua, jende mordo: hiru haur, aitona bat, bi senar emazte, zaldi gai- nean dagoen bat, eta beste bost gizaseme gehiago. Han dator moro bat ere taldera, ur saltzai- le, bere barrika eta edalontzie- kin. Eskuinean meloi saltzeko lekua, gordasol haundi batez babestua. Udatzena da beraz. Eskena patxadako da: itsuak kantari, lilura goxotan dauzka entzuleak berrimazte».

Everett-en neskati- lita itsua, udalehenen, egunsentian da- go, munduko argitasun bizia zeruraino goratzen deneko gaz- taro birjinean, eta amoremin arrotz batek, begi bietako argia bihotzera bildu dio. Udatzene- an dago, ordea, Goyaren itsua, ilunabarrean, zeruko argitasun epela munduan itzaltzera dato- rreneko zahartzaro xuhurrean, eta bi begietako argia burura bildu zaiola dirudi.

Ez, itsu guziek ez dute berdin ikusten.

Ziria

• Motxorrosolo •

Mila amorru meta

ORAINGO HONETAN EZIN ERREPİKATU «HORTZETAN HARRAPATURİK JAKIN dugu otsoaren berri» esamoldea. Euskalerrria irratiaarena lehia- ketan zen bideratu. Amorrua pilatzen ikasi dugu, inoiz lehertuko ote den baino, leherketaren moldea dugu afera. Bizkitartean eta Iruñe- rriko uhinei dagokionez, garbi dago. Entzun, aditu. Zoritxarrez, Irra- tiak ez ditu gaurdaino gozatu amorrua adierazi duten askoren bela- rriak. Gorra ote?

Tomas Sobrino

© Margolaria

«Argiaren momentuak gozatzea dut gustoko»

Margozaleen pausaleku bihurtzen da Baztan azken udaotan. Artistek beren etxeetako atek zabaltzen dituzte egindako lanak erakusteko eta horren adibide da Tomas Sobrino elizondoarra. Margolariak azkenaldian egindako olioak bildu ditu abuztua bukatu arte Jaime Urritia kaleko 23. zenbakian. Baztango paisaiak ez ezik, bidaietan ikusitakoak jaso ditu mihiseetan.

E RAKUSTARETOAN BISITARIAK noiz hurbilduko zain zegoen Sobrino elkarrizketa zera hurbildu ginenean. Bere lana pintzelarekin ez ezik, solasaldiarekin ere kontatzea gustoko duela nabaritu genion.

■ **Nola begiratu behar du bisitariak zure lana?**

Baldintzarik gabe begiratu behar luke ikusleak nire lana. Kuadro bat ona edo txarra dela azaldu baino, jendeak inozenteki begiratu behar dio kuadroari, esan gustokoa duen edo ez. Egiten dudana margoa eskuragarria da, ez da abstrakzio konplikatu edo teoriko bat, zirrarez betetzen nauden zerbait egiten dut, dela paisai bat dela bodegoi bat.

■ **Zurean ohikoa da Baztango paisaia, udazkena eta udaberria, batez ere. Ez zaitu nekatzten?**

Baztan oso gustoko dut. Hemen goa naiz eta asko betetzen nau. Beste urte batzuetan erakusketaren ardatz baziren ere, aurten ez dut Baztan bakarrik sartu. Paisatez aldatzea gustoko dut eta baditut beste lan batzuk: Lisboako kaleak, San Martin Unx, Miarritze, Hendaia, Hondarrabia eta Calatayudeko alde zaharra edo Nafarroako erdialdeko paisaiak.

■ **Zergatik paisaiari hainbeste-ko begirunea?**

Bodegoiak eta erretratuak ere egiten ditut baina paisaia asko gustatzen zait. Argiaren momentuak gozatzea dut gustoko, hala ere, udan ez dut margotzen.

Gehiengoari udan hemengo berdea gustatzen zaio. Niri aldiz, ohikoa, monotonoa iruditzen zait. Paisaiak hainbat kolore tonu izatea nahi dut, hemen oso laua da eta horregatik ez dut uda pintatzen.

■ **Lanean zein izan duzu erakusle?**

Kasualitatez hasi nintzen margotzen, honera etorri zen Frantzia exiliatutako Angel Rivas donostiarrak bultzatuta. Garai hartan nire aitak zuen denda nengoen lanean eta denbora asko nuenez margotu egiten nuen. Rivas agertu zen behin denda eta interesatu zitzaion nire lana. Liburuak ekarri zitzaion, solaserako biltzen ginen. Oso intesgarria izan zen. Berak sortu zidan pinturarekiko grina, artea sentiarazi zidan. Hari esker jarraitu dut pintatzen. 1970a zen eta Kepa Arizmendirekin hasi nintzen pintatzen. Gero hemengo margolari taldearekin jarri ginen harremanetan: Ana Mari Marin eta Jose M^a Apezetxea, besteak beste, eta erakusketak egiten hasi.

■ **Margo klaseak ere ematen dituzu udan kanpoan. Nahiago duzu kanpoan lan egin?**

Zer egiten duzun. Urtean zehar haurrekin aritzen naiz Elizondoko Kultur Etxean. Udan aldiz, kalean ematen ditut. Pintura kalera ateratzea ideia ona da. Pintatzea gustoko duen jendea mugatua dago hemen neguan eguraldi txarra egiten duelako, eta egunean zehar lanpetua zaude lanarekin. Kalera irtetzea falta zaie eta beren kuadroa pintatzea. Klase batek mugatu egiten zaitu bodegoiak edo beste lan batzuen birproduktzioak egitera. Honera hurbiltzen den askok hori egiten du neguan. Konturatzeko dira horrela ere asko aurreritzen dutela. Baina kalera atera, zure lekua hartu, kuadroa kokatu eta zuk zeuk egiteak esan nahi du lana zurea dela, zuk ikusi, aurkitu eta sortu duzulako. Jendea gustorago geratzen da koloreak interpretatu dituelako eta lan pertsonalagoa egin duelako. Herriz-herriz ibiltzen gara eta hamar-hamabi astoan belatsoan paratzea deigarria da, solasten dugu eta jendea pozik geratzen kanpora ateratzean lotsa galduz.

■ **Zer du Bidasoaldeak hainbeste margolari sortzeko?**

Ez dago arrazoi bakarrik baizik eta baldintza asko. Margoa ez ezik, beste arte batzuekiko sentsibilitatea handia nabaria da. Deigarria da hamabost eta 10.000 biztanle herri dituen bailaran kultur kezka handia egotea. Erakusketak egiten direnean oso harrera ona dute. Pintura ikustera ohi-ituak daude eta musika entzuterara ere. Elizondoko abesbatzak sentiberatasun bat sortu du musikarekiko eta kanpoko jendea ere arritzen da dauden aktibitateak. Idazleak ere etortzen dira honera bizitzera denak badu zerikusia.

Tomas Sobrino duela 45 urte sortu zen Elizondoko Txokoto auzoan. Baztango harria lantzen jaiotako izan zuen Silberio Sobrino osaba zena, baina familian ez du beste artistarik. Margotzea gustoko beti izan duen arren, Donostian Delineatzaile ikasketak egin ondoren hasi zen serio lanean, 70ko hamarkadan.

Duela sei urte Lesakako Laminazioetako Antolakuntza departamentuan zuen lana utzi eta pinturaz bizitzea erabaki zuen asteburutan eta oporretan bakarrik margotu zezakeelako. Ez da damutzen hartutako erabakiaz. Geroztik neguan zein udan pintura irakasten du Elizondon eta erakusketetan saltzen duen lanaz bizi da.

Margotzeaz gain, oso gustoko du paseatzea eta ehizatzea. Lehen arrantzara ere joaten omen zen, baina orain nahiko utzia du. Ahal duenean Madrilerara, Parisera edo beste hiriretan batera erakusketak ikustera eta bertako giroa bizitzera joaten bada ere, Elizondon oso ongi bizi dela dio. «Nahi dudana beste toki batzuetan baino gehiago lor daitekeelako hemen. Bizitzeko adina baduzu, bada besterik pinturan. Egun osoan margoarekin harremanetan egotea oso garrantzitsua da», gaineratu du.

■ **Iruñean ez bezala, hemen oso harreman estua duzu margolarien artean.**

Ez dakit han harreman gutxiago duten. Hemen gertuago gaudelako edo, harreman gehiago dugu. Iruñera irekiera ekitaldietara joaten naizenean hangoekin mintzatzen naiz eta eta ikusten dut erakusketak topaleku dituztela, baina ez direla bestela elkartzen. Han gertuago daude baina ez dute harremanik. Hau herri bat da eta hitz egiteko giroa aproposagoa da.

■ **Badituzu erakusketak gehiago aurrerantzean?**

Ez dut horretan pentsatzen. Askok egin ditut taldeak. Eguberri-tan Bidasoaldeko margolari batzuk egin genuen bat Iruñeko San Anton aretoan. Jendeak gustoko ditu. Gernikan ere Kultur Etxean egin nuen beste bat duela gutxi, baina erakusketak egiteko behar-rrak ez nau gehiegi kezkatzen, ez naiz hortaz arduratzen. Udaoro egiten dudana erakusketan egotea gustatzen zait. Egilearekin zuzenean hitz egiteko aukera esker-tzen du ikusleak.

→ Irene Arrizurieta



MIKEL SAIZ

soslaia

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Komunikabide solas

ikaragarria da noraino iritsi den komunikabide gehien setakaria, itsuski eta zakar, txalo zaparradan ari baitira, pozez txoratzen Egin hertsu dutelako. Hernaniko egunkariari, egia erran, direnak eta ez direnak, bereak eta asto beltzarenak, leporatzen ari zaizkio, eta, ele-zurien solas-lekuetan lehian ari dira, zeinak handiagoa bota. Kritika izpirik ez da agertu kazetari eta tertuliakide horien artean, ez dira gauza zuria beltzetik bereizteko, edo ez dute bereizi nahi, eta saldoan gustora dabilta, Mayor Oreja artzain dutela. Ohi ez bezalako lilura batek hartuta dabil ministro hori eta, ia ia kontrako ahotsik gabe, aitzinera egin nahi du zentzugabeko bide horretan, itsumustuka harat-honatan, zartakoak emanez. Larrazkeneko hauteskundeak allegatu bitartean, gainera, bertze bizpahiru astinaldi eman nahi ditu. Auskalo hurrengoan non joko duen: hezkuntzan, sindikal-gintzan, kulturaren... Aski da gizabanakoei zein taldeei «banda armatuari laguntza eman izana» bizkarreratzea. Azken buruan, xedea da haiekin bat ez datozenei, abertzale eta euskaltzaleei, batipat, azpiak jatea; hori bai, legezko itxura emanez.

Bizkitartean, irratiko balmenen banaketa berriz ere albiste izan da gure herrialdean. Duela zortzi urteko azpikeriak gertaberritu dira. Oraingo honetan lehendakariaren lehengusuak azken zenbakiak eta puntuazioak ibilarazi omen ditu, kontseilariaren esanetara, beti ere. Eta Diputazioko txoko batean entzunik badakit zer nola pentsatzen duen kontseilari horrek euskararen gainean. Izan ere, duela urtebete Blanco gaztearen hilketan izan zenean, hauxe erran omen zuen Palacosek bere ama hizkuntzan: «Zer eta orain, gertatutakoak gertatuta, euskal komunikabide horiek nahi dute Nafar Gobernuak bere informazioa haiel euskaraz ere banatzea...?».

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Datorren asteazkenean *Canción con reflejo* kontzertua eskainiko da Lorca-ren omenez Arrosadia kiroledegian 22:00etan.
- **Altsasu:** Kolonbiako Yuri Buenaventura abeslariak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean Zelandi belardian, 22:00etan. Bestalde, gaur Errusiako Armadaren Orkestrak joko du Burunda pilotalekuan, 22:00etan.

ZINEMA

- **Lazagurria:** 'El mañana nunca muera' pelikula eskainiko da gaur, 22:00etan. Bihar berriz, pelikula bera Nabaskozen pantailartuko da, plazan, ordu berean.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Mari Marinen lanak ikusteko aukera du Bergarenea etxera hurbiltzen den edonork abuztuaren bukaera bitartean. Jose M^a Apeztxea eta Tomas Sobrioren erakusketak ere badira uztailaren zein abuztuaren.

BESTELAKOAK

- **Atarrabia:** Egiptologiako hainbat mintegi antolatu ditu Maler Kultur Elkarteak. Ikastaroak abuztuaren eta irailaren artean egingen dira. Ikastaroak 10:00etatik 13:00ak arte egingen dira Kultur Etxean. Ikastaro bakoitza 3.800 pezeta balio du. Izena emateko epea uztailaren 31an bukatzen da.
- **Tutera:** Keileseko Pasealekuan VIII Artisanatza Azoka egingen da datorren asteartean. Peria goizeko 10:30etan zabalduko da 14:30ak arte eta arratsaldez 17:30etatik 20:30etara. Han bilduko dira, beste

batzuren artean: larruarekin, keramikarekin, egurrekin edo lore lehorrekin lan egiten duten artisauek.

- **Iruñea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoak garapenerako laguntza eskaintzeko trebakuntza beka deialdi bat egingo du graduatu ondorengo ikasleentzako. Dirulaguntza hamabi hilabeterako da.

Hartzaileak 85.000 pezeta jasoko du eta beka beste urte bat luzatu daiteke. Laguntza eskatu ahal izateko beharrezkoa da 1996-97ko ikas-turtetik aitzina honako tituloren bat lortu izana: Diplomatu, Arkitekto Tekniko, Ingenieritza Tekniko edo Arkitekturan edo Ingenieritzan lizentziatura.

► **Zangoza:** Datorren asteartean Angel Garraza eskultoreak *Presencia de lo cerámico* hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 20:00etan. Ostegunean berriz, lekukoa Patricia Riegerrek hartuko du.

► **Arantzaz:** Etzi Jose Agirre, Xabier Legarreta eta Imanol Lazkano bertsolariak ariko dira egun osoz, gaia librean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



dirua guretako ez da dirua, erosotasuna da, dirua behartsuen aferra da, haiendako bizia baita, guretako dirua, esate baterako, hauxe da:

70DANO
GTI

bestarik pentsatu.